EUSKO
LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO
VASCO

PUBLICACIÓN DE LA SESIÓN PLENARIA CELEBRADA LOS DÍAS 6 Y 7 DE OCTUBRE DE 1983

La sesión plenaria se celebró en dos días, procediéndose a su publicación en dos tomos, uno por cada día.

TOMO I
Correspondiente al día 6 de Octubre.


TOMO II
Correspondiente al día 7 de Octubre.

1983KO URRIAREN 6AN ETA 7AN EGINDAKO BILKURAREN ARGITALPENA

Osoko bilkura hiru egunetan egin zen, bi dela eta bi aletan argitaratu da, egun bakoitzak berea.

I ALEA
Urriaren 6ari dagokiona.

II ALEA
Urriaren 7ari dagokiona.



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

BILKURA-EGUNKARIA

DIARIO DE SESIONES

I. legegintzaldia / I Legislatura

N.º 34.1 zk.

Pulsando sobre las líneas del índice accederá al texto completo.

Aurkibideko lerroetan sakatuz testu osoa eskuratuko duzu.

Sesión celebrada el 6 de octubre de 1983


VITORIA-GASTEIZ

ÍNDICE

1983ko urriaren 6an egindako Osoko Bilkura

VITORIA-GASTEIZ

AURKIBIDEA



BILKURA-EGUNKARIA

DIARIO DE SESIONES

I. legegintzaldia / I Legislatura

N.º 34.2 zk.

Pulsando sobre las líneas del índice accederá al texto completo.

Aurkibideko lerroetan sakatuz testu osoa eskuratuko duzu.

Sesión celebrada el 7 de octubre de 1983

VITORIA-GASTEIZ

ÍNDICE

1983ko urriaren 7an egindako Osoko Bilkura

VITORIA-GASTEIZ

AURKIBIDEA

Se abre la sesión a las 16 horas, 40 minutos.

El Sr. **PRESIDENTE** (Pujana Arza): Se abre la sesión.

Informo a la Cámara de que el punto que figura en el "dossier" entregado como número 5 pasará, a petición del Gobierno y aceptado por la Junta de Portavoces, al número 2.

Asunto 1 del orden del día: "Refrendo por el Pleno de la Cámara de la Ley 17/1983, de 8 de septiembre, por la que se faculta al Gobierno para dictar decretos-ley con motivo de las recientes inundaciones".

Obviando la lectura de la ley, pasamos directamente a la votación. *(Pausa.)*

Efectuada la votación, el resultado fue el siguiente: votos emitidos, 28; a favor, 22; en contra, ninguno; abstenciones, cinco; nulos, uno.

El Sr. **PRESIDENTE**: Queda, por tanto, aprobada o convalidada la ley que en su día acordó la comisión correspondiente. Turno de explicación de voto.

El señor Griñó tiene la palabra.

El Sr. **GRIÑÓ RABERT**: Señor Presidente, señorías, la Comisión Parlamentaria I (Institucional, Administración General, Legislativa), en uso de la delegación legislativa plena que le fue otorgada, aprobó en su sesión del día 8 de septiembre el proyecto de ley por el que se facultaba al Gobierno para dictar decretos-ley con motivo de las recientes inundaciones. Las circunstancias excepcionales en que se encontraba el País Vasco tras las catastróficas lluvias caídas, que arrasaron vidas y bienes, requerían, evidentemente, medidas también excepcionales.

Al amparo de lo que establece el artículo 116 del Reglamento de este Parlamento, la comisión aprobó casi por unanimidad de sus miembros, representantes de los distintos grupos políticos, el otorgamiento de la facultad de dictar decretos-ley durante el plazo de cuatro meses. Nuestro grupo, el Grupo Mixto, en el que mayoritariamente está integrada Coalición Popular, respaldó con su voto la propuesta, como ahora refrenda con su voto la resolución entonces tomada por la Comisión I.

Pero sí queremos decir, como en su día dijimos en comisión, que debía obrarse con prudencia por parte del Gobierno en la utilización de los decretos-ley, dado que en el fondo el artículo 116, en su punto 3º, señala que en ningún caso podrán acordarse delegaciones genéricas o indefinidas. La amplitud del campo de aplicación, la justificación de la extensa excepcionalidad, hacían que la delegación fuera necesariamente genérica e indefinida, y por ello, a pesar de este recelo digamos procesal, hemos votado a favor y ahora votamos a favor del refrendo.

Bilkurari ekiten zaio 16 orduak eta 40 minutu direnean.

LEHENDAKARI (Pujana Arza) jaunak: Bilkurari ekin egiten zaio.

Legebiltzarrari jakinerazten diot 5 zenbakiarekin banatu den "dossier"a, Jaurlaritzak hala eskatuta eta Eledunen Batzordeak onarturik, 2 zenbakiarekin joango dela.

Gaizerrendako lehen arazoa: "Orain dela gutxiko uholdeak direla eta, Jaurlaritzari lege-dekretuak emateko ahalmena ematen dion 17/1983 Legeari, irailaren 8koari, Osoko Bilkurak sendespena ematea".

Legea irakurri gabe, goazen zuzenean boto-emanketara. *(Tartea.)*

Boto-emanketa egin ondoren, emaitza honako hau izan zen: emandako botoak, 28; aldekoak 22; aurka, bat ere ez; abstentzioak, bost; baliorik gabeak, bat.

LEHENDAKARI jaunak: Beraz, bere garaian zegokion batzordean erabaki zen legea onetsitzat edo sendetsitzat ematen da. Boto-adierazpenerako txanda.

Griñó jaunak du hizpidea.

GRIÑO RABERT jaunak: Lehendakari jauna, legebiltzarkideok, I. Legebiltzar-Batzordeak (Erakundeak, Adminisrazio Orokorra, Legegintza), eman zitzaion erabateko legegintzara-ordezkaritza erabiliz, irailaren 8an eginiko bilkuran, onespena eman zion orain dela gutxiko uholdeak direla eta, Jaurlaritza lege-dekretuak egiteko ahalmenez janzten zuen legetasmoari. Bizitzak eta ondasunak errauztu zituzten hondamenezko euri-jasen ondoren Euskal Herriak bizi zuen berealdiko egoerak, baita ere berealdiko neurriak eskatzen zituen zalantzarik gabe.

Legebiltzar honetako Araudiko 116. atalak ezartzen duenaren babesean, batzordeak, ia politikazko talde ezberdinetako ordezkari ziren kideen ahobatez, Jaurlaritza lau hilabetez lege-dekretuak emateko ahalmenaz janzteari onespena eman zion. Gure taldeak, Askotariko Taldeak, Coalición Popular-eko kide gehienak hartzen dituen taldeak, bere botoarekin aldezpena eman zion saloari, eta orain era berean bere botoarekin sendespena ematen dio I. Batzordeak bere garaian hartutako ebazpenari.

Baina esan nahi dugu, bere garaian batzordean esan genuen bezalaxe, Jaurlaritzak lege-dekretuak erabiltzerakoan zuhur jokatu beharko zuela, 116. atalak azkenean, 3. puntuan, orotariko edo zehaztugabeko eskuordetzeak inola ere ematerik ez dagoela aipatzen baitu. Ezarpen-eremuaren zabaltasunak, apartekotasun hedatsuaren zioak, eskuordetza nahitaez orotarikoa edo zehaztugabea izan zedila eragiten zuten, eta horrexegaitik, nahiz eta auzipidekotzat jo dezakegun susmo hau izan, eman diogu aldeko botoa eta ematen diogu orain sendespenaren aldeko botoa.

Sí deseamos exponer que sería seguramente bien visto por todos que, dada la diligencia con que se han adoptado las medidas básicas para ordenar la reconstrucción y paliar los daños, y también, por qué no decirlo, la agilidad demostrada por esta Cámara en su funcionamiento, hicieran innecesario que el Gobierno agotara el plazo de cuatro meses y, en consecuencia, el Gobierno comunicara a esta Cámara, dentro de las próximas semanas, su renuncia a la facultad otorgada. Muchas gracias.

El Sr. **PRESIDENTE**: El señor Olaverri tiene la palabra.

El Sr. **OLAVERRI ZAZPE**: Nuestro grupo ha vuelto a repetir aquí la votación que ya propuso en comisión, de abstención, básicamente por un problema de salvaguardar los posibles problemas legales que nosotros vemos en el tema de decretos-ley, en tanto en cuanto entendemos que ya cuando se discutió la ley de Gobierno parecía obvio a esta Cámara que ni el Estatuto ni la Constitución autorizaban a este Gobierno en particular -no a otros de otras Autonomías- a actuar bajo esta forma legal.

De hecho, algo de este asunto debe comprender el propio Gobierno cuando a la hora de aplicar una medida importante, como es la del recargo fiscal, ha elegido el proyecto de ley y no el decreto-ley. En todo caso, entendemos nosotros que nuestra posición, siendo favorable a facilitar a este Gobierno la capacidad de actuar lo más rápidamente posible, queda salvada por si después el Tribunal Constitucional en su caso considerase que efectivamente el decreto-ley no es la fórmula más adecuada para este Gobierno.

El Sr. **PRESIDENTE**: El señor Rubalcaba tiene la palabra.

El Sr. **RUBALCABA QUINTANA**: Muy brevemente, señor Presidente, para apoyar el acuerdo que se adoptó mayoritariamente en la comisión. Indudablemente, las razones que este país ha tenido que soportar obligaron a tomar aquel acuerdo en comisión que ahora en este Pleno por nuestra parte ha sido ratificado, y ha sido ratificado mayoritariamente por esta Cámara.

Se nos dice por el Grupo de Alianza Popular que si se pudiera, en próximas semanas, renunciar por el Gobierno. Nosotros estamos seguros de que el Gobierno renunciará en el momento en que el decreto-ley no sea necesario para paliar las desgracias que en este momento sufre nuestro pueblo. Pero la razón que nos obligó a aprobar la ley o el acuerdo que en este momento tenemos, para que el Gobierno pudiera aplicar los decretos-ley, mientras subsistan las circunstancias que lo motivaron por supuesto que el Gobierno lo va a seguir usando. Esperamos que por el tiempo mínimo posible.

En cuanto a los reparos que ponía el Grupo de Euskadiko Ezkerra, yo recuerdo, cuando discutíamos la ley de Gobierno, que precisamente Euskadiko Ezkerra y nosotros estábamos de acuerdo en que este Gobierno tuviera decretos-ley. Era otro grupo parlamentario el que no quería que tuviera decretos-ley, pero eso fue una dis-

Adierazi nahi genuke guztiok seguru asko ongi ikusiko luketela, ikusita berreraikuntza antolatzeko eta kalteei aurre egiteko oinarrizko neurriak artaz hartu direla, eta baita ere, ezin esan gabe utzi, Legebiltzar honek ihardutzeko orduan erakutsitako arintasuna, Jaurlaritzak lau hilabeteko epe horren beharrik ez duela eta, ondorioz, Jaurlaritzak, hurrengo asteetan, emandako ahalmen horri uko egiten diola jakineraziko balio Legebiltzar honi. Eskerrik asko.

LEHENDAKARI jaunak: Olaverri jaunak du hizpidea.

OLAVERRI ZAZPE jaunak: Gure taldeak hemen bere garaian batzordeak aurkeztu zuen botora jo du berriro, alegia, abstentziora, batipat guk dekretu-legeen inguruan etor daitezkela uste dugun arazoetatik babesteko, gure iritziz Jaurlaritza-legea eztabaidatu zenean ere Legebiltzar honi argi geratu baitzitzaion ez Estatutoak ez Konstituzioak ez zutela baimenik ematen Jaurlaritza honek hain zuzen -ez beste Autonomi Elkarte batzuetako Jaurlaritzek- lege-bide honi jarraiki ihardutzeko.

Izan ere, Jaurlaritzak berak badaki honetaz zerbait zerga-gehikuntza bezalako garrantzizko neurri bat ezartzerakoan, legetasmoaren eta ez lege-dekretuaren bideari heldu dionean. Dena den, gure ustean, gure jarrera, nahiz eta Jaurlaritza honi ahalik eta azkarren ihardutzeko gaitasuna ematekoaren aldekoa den, salbu geratzen da baldin eta gero Konstituzio Auzitegiak lege-dekretua Jaurlaritza honentzako biderik egokiena ez dela iriztziko balio.

LEHENDAKARI jaunak: Rubalcaba jaunak du hizpidea.

RUBALCABA QUINTANA jaunak: Labur-labur, Lehendakari jauna, batzordean gehiengoz hartutako erabakiaren alde agertzeko. Zalantzarik gabe herri honek jasan behar izandakoek batzordean erabaki hura hartzera behartu zuten, orain Osoko Bilkura honetan gure aldetik sendespena jaso duena eta Legebiltzar honetako gehiengoak sendespena eman diona.

Alianza Popular Taldetik Jaurlaritzak, ahal bada, hurrengo asteetan, ahalmenari uko egin diezaiola esaten zaigu. Gu ziur gaude Jaurlaritzak uko egingo diola lege-dekretua une honetan gure herria jasaten ari den zorigaitzei aurre egiteko beharrezko ez den unean. Baina erabaki hau eragin zuten gertakariek iraun bitartean, Jaurlaritzak lege honi onespena ematera eraman gintuen arrazoiak edo orain dugun erabakia erabiltzen segituko du noski. Ahalik eta denbora gutxien izan dadila espero dugu.

Euskadiko Ezkerra Taldeak agertzen zituen zalantzei dagokinean, nik gogoan dut, Jaurlaritza-legea eztabaidatzen ari ginenean, hain zuzen Euskadiko Ezkerra eta gu bat gentozela Jaurlaritzak lege-dekretuak egiteko ahalmena izatean. Beste Legebiltzar-Talde bat zen lege-dekretuak emateko ahalmenik izan ez zezala nahi zuena,

cusión pasada. Indudablemente, el Gobierno va a usar esos decretos-ley en el plazo que se ha fijado y para las inundaciones, para el tema que se ha fijado.

En cuanto al proyecto de recargo fiscal, que se ha presentado el recargo fiscal como proyecto en vez de llevarlo como decreto-ley, indudablemente la razón es por un sistema de democracia, porque es un tema fiscal, además de que no tiene tanta urgencia como otras medidas que ha habido que adoptar rápidamente. Lo que sí sucede es que pensamos que es preferible que esta Cámara lo vea más detenidamente.

Con toda esta exposición nosotros y creo que toda la Cámara hemos apoyado la razón de esta urgencia y la razón de estas medidas. Estos decretos-ley, que además ahora vienen a la Cámara para su ratificación uno por uno y que en un debate de globalidad vamos a ir viéndolos a continuación, en todo caso dan razones de la actuación rápida y eficaz del Gobierno vasco. Muchas gracias.

El Sr. **PRESIDENTE**: Punto segundo del orden del día: "Debate y votación de totalidad en orden a la convalidación o derogación del Decreto-Ley 4/1983, de 12 de septiembre, por el que se autoriza la modificación de la adjudicación de subvenciones con cargo al Fondo de Obras de Lucha Contra el Paro previsto en la disposición adicional sexta del texto refundido del Presupuesto de la Comunidad Autónoma del País Vasco para 1983, aprobado por Decreto Legislativo 1/1983, de 18 de abril".

Exposición por parte del Gobierno del decreto-ley. Tiene la palabra el señor Vicepresidente del Gobierno para Asuntos Autonómicos.

El Sr. **VICEPRESIDENTE DEL GOBIERNO PARA ASUNTOS AUTONÓMICOS** (Fernández Pelaz): Señor Presidente, señoras y señores parlamentarios, muy brevemente, porque el texto del propio decreto-ley cuya ratificación ahora se debate es extraordinariamente conciso. Se trata sencillamente de contemplar un supuesto que se nos había puesto de manifiesto por parte de algunos ayuntamientos, en el sentido de que algunas de las obras financiadas con subvenciones procedentes del Fondo de Obras de Lucha Contra el Paro, en un determinado estadio de su ejecución, como consecuencia de las inundaciones eran de imposible consecución, como consecuencia de que podrían existir necesidades más apremiantes o, sencillamente, con el mismo costo previsto era imposible la ejecución de la obra.

En este sentido se abre aquí una vía con un plazo para formular la solicitud correspondiente, que precisamente concluye mañana, en el que deberán aportarse las razones en virtud de las cuales se solicita el cambio de destino de la subvención que se adjudicó en su momento, remitiendo además la documentación establecida en la propia ley General de Presupuestos de la Comunidad Autónoma a este respecto. Y se menciona también la necesidad de que los nuevos proyectos se refieran también a las obras concretamente citadas en el párrafo tercero de la disposición adicional sexta de la reiterada ley de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma.

baina hori pasa zen eztabaidaketa bat izan zen. Zalantzarik gabe, Jaurlaritzak lege-dekretu horiek ezarritako epean eta ezarritako gairako erabiliko ditu, alegia, uholdetarako.

Zerga-gehinkuntzako egitasmoari dagokionean, alegia, zerga-gehikuntzaren gaia egistamo bezala aurkeztu dela eta ez dela lege-dekretuaren bidetik bideratu, zalantzarik gabe honen zergaitia demokrazia-sisteman datza, zeren zergei dagokien gaia da eta gainera ez du uholdeen gaian azkar hartu behar izan diren beste neurriek bezain beste premia izan. Gertatzen dena da uste dugula nahiago dela Legebiltzar honek polikiago ikustea.

Adierazpen honekin guk, eta uste dut Legebiltzar osoak, aldezpena eman diogu premiaren arrazoiri eta neurri hauen arrazoiari. Lege-dekretu hauek dena den, orain gainera Legebiltzar honetara banan-banan etorriko direnak eta ondoren eztabaidaketa oroko batean ikusiko ditugunak, Eusko Jaurlaritzaren iharduna azkarra eta eraginkorra izan dela erakusten dute. Eskerrik asko.

LEHENDAKARI jaunak: Gaizerrendako bigarren puntua: "Euskal Autonomi Elkarteko 1983ko Aurrekontuko idazki bateratuan, apirilaren 18ko 1/1983 Dekretu Legegile bidez onartutakoan, seigarren erabaki gehigarrian ezarrita dagoen Langabeziari Aurre egiteko Lanen Baltzaren kontura dirulaguntzen esleipena aldatzeko baimena ematen duen irailaren 12ko 4/1983 Lege-Dekretua sendestera edo baliogabetzera bideratutako eztabaidaketa eta osoarekiko boto-emanketa".

Jaurlaritzaren aldetiko lege-dekretuaren adierazpena. Autonomi Arazoetarako Jaurlaritzako Lehendakariordeak du hizpidea.

AUTONOMI ARAZOETARAKO JAURLARITZAKO LEHENDAKARIORDE (Fenández Pelaz) jaunak: Lehendakari jauna, jaun-andre legebiltzarkideok, oso labur, sendespena eztabaidatzen zaion lege-dekretuak berak dioena ere ikaragarri laburra delako. Ondorengo hau besterik ez da, hots, zenbait udalek aditzera eman diguten zerbait, alegia, Langabeziari Aurre Egiteko Lan-Baltzatiko dirulaguntzez dirubidetutako zenbait lan, egiteratze-aldi jakin batean daudenak, uholdeen ondorioz bete ezinak zirela, bazitekeelako premia handiagoa zuten beste behar batzuk egotea edota, aurrikusitako kostu berarekin ezinezkoa gertatutko zelako lana aurrera eramatea.

Ildo honetatik dagokion eskaera egiteko epe bat irekitzen da hemen, hain zuzen bihar bukatzen dena, eskaera honetan bere garaian izendatu zen dirulaguntzaren norakoa aldatzeko eskatzera eramaten duten arrazoiak jaso beharko direlakik, era berean Autonomi Elkarteko Aurrekontuen lege Orokorrak berak honi buruz aipatzen dituen agiriak erantsiz. Eta egitasmo berriak behin eta berriz aipatu den Autonomi Elkarteko Aurrekontu Orokorren legeko seigarren erabaki gehigarriko hirugarren lerroaldean adierazten diren lanei loturik egoteko premia aipatzen da baita ere.

Hasta este momento, para dar información a la Cámara de lo que de modo oficioso conocemos, puesto que aún no se ha cerrado el plazo correspondiente, se han presentado ya cuatro solicitudes de ayuntamientos por parte de los Ayuntamientos de Bakio, Munguía, Arrancudiaga y Güeñes, y tenemos conocimiento oficioso de que puede haber otros dos ayuntamientos en Vizcaya (Echévarri y Loiu), y en Guipúzcoa Beasain, Eibar, Elgoibar, Ibarra, Deba, Legazpia, Ordicia, Vergara y Villabona.

Hay aquí, no obstante, un problema que quiero poner ya de manifiesto a la Cámara en este momento inicial, y es que no se trata de solicitar la modificación del destino de la subvención concedida para destinar la nueva subvención a reparar daños causados como consecuencia de las inundaciones. Porque, como la propia Cámara conoce, la reparación de los daños tiene ya su fuente de financiación a través del acuerdo alcanzado con el Gobierno del Estado, en el sentido de que hay un 50 por ciento de subvención de los Presupuestos Generales del Estado y otro 50 por ciento de crédito del Banco de Crédito Local. En consecuencia, repito que no se trata de destinar esta subvención a ese objeto de reparar daños, puesto que eso tiene sus fuentes de financiación aparte.

Y realmente nada más, puesto que, como digo, el decreto-ley se refiere a un supuesto tan concreto como este. Lo único que quiero añadir, puesto que no está en el texto del decreto-ley, es que en cuanto por parte del Departamento de Trabajo se adopten las decisiones correspondientes respecto de las posibles alteraciones de destino de las subvenciones se procederá a informar de modo inmediato a la Comisión de Trabajo y Bienestar Social de este Parlamento.

El Sr. **PRESIDENTE**: Debate de totalidad. Turno a favor. *(Pausa.)*

Turno en contra. *(Pausa.)*

Intervención de los grupos parlamentarios para fijar posiciones. El señor Griñó tiene la palabra.

El Sr. **GRIÑÓ RABERT**: Señor Presidente, señorías, muy brevemente, para comentar este breve decreto-ley que nos ocupa, que era, a nuestro juicio, de necesaria promulgación. Hubiera sido ridículo que los fondos destinados a obras para mitigar el paro siguieran invirtiéndose por los ayuntamientos, mancomunidades o entidades locales menores de los territorios forales de la Comunidad Autónoma en obras que no resultan tan urgentes, comparadas con las muy urgentes necesarias para reparar los daños de las catastróficas inundaciones, aun cuando éstas tienen otras fuentes de financiación.

Coalición Popular, como parte integrante del Grupo Mixto, expresa su conformidad con los fines perseguidos por el decreto-ley y anuncia su apoyo a la convalidación solicitada. Muchas gracias.

Orain arte, Legebiltzarrari orain arte modu ez-ofizialean jakin dugunaren berri emateko, oraindik ez baita horretarako epea bukatu, honez gero lau eskaera aurkeztu dira, hain zuzen Bakio, Mungia, Arrakundiaga eta Gueñesko Udalek, eta modu ez-ofizialean jakin ahal izan dugu behar bada Bizkaian beste bik eskatuko dutela, Etxeberrik eta Loiuk, eta Gipuzkoan Beasain, Eibar, Elgoibar, Ibarra, Deba, Legazpi, Ordizia, Bergara eta Billabonak eskatuko dutela.

Hemen, hala ere, Legebiltzarrari hasieratik azaldu nahi diodan arazo bat dago, alegia, gaia ez dela esleitutako dirulaguntzaren norakoa aldatzea dirulaguntza berria uholdeak direla eta gertatutako kalteak konpontzera bideratzeko. Zeren, Legebiltzarrak berak dakienez, kalteen konponketak dagoeneko badu dirubidetzeko bere iturria Estatuko Jaurlaritzarekin egindako hitzarmenaren arabera, alegia, dirulaguntzen ehuneko 50a Estatuko Aurrekontu Orokorretatik etorriko dela eta gainerako ehuneko 50a Banco de Crédito Local-etik. Beraz, berriro diot, gaia ez dela dirulaguntza hau kalteak konpontzeko erabiltzea, honek bere dirubideak baititu.

Eta egia esateko, besterik ez, zeren diodanez, lege-dekretua hau bezain zehatza den egoera bati baitagokio. Erantsi nahi dudan bakarra da, ez baitago lege-dekretuan jasota, Lan-Sailak dirulaguntzen norakoen aldaketei buruz dagozkion erabakiak hartu bezain laster Legebiltzar honetako Lan eta Gizarte-Ongizate Batzordeari horren berri emango zaiola berehala.

LEHENDAKARI jaunak: Osoarekiko eztabaidaketa. Alde hitz egiteko txanda. *(Tartea.)*

Aurka hitz egiteko txanda. *(Tartea.)*

Legebintzar-Taldeen txanda bakoitzearen jarrera adierazteko. Griñó jaunak du hizpidea.

GRIÑO RABERT jaunak: Lehendakari jauna, legebiltzarkideok, oso labur, gagozkion lege-dekretu labur honi buruz iruzkin bat egiteko, gure aburuz, atera beharra zegoen lege-dekretua. Parregarri izango litzatekeen Autonomi Elkarteko foru-lurraldeetako udalek, udal-elkarteek edo toki-erakunde txikiek langabeziari aurre egiteko lanetarako zuzendutako diruak, hondamenezko uholdeek sortutako kalteak konpontzeko lanen aldean horren premiazkoak ez diren lanetarako erabiltzen segitzea, nahiz eta azken lan hauek bere dirubidetza-iturriak izan.

Coalición Popular-ek, Askotariko Taldeko kide denez, lege-dekretuaren xedeekiko adostasuna adierazten du eta eskatzen den sendespenari baietza emango diola iragartzen du. Eskerrik asko.

El Sr. **PRESIDENTE**: El señor Olaverri tiene la palabra... Señor Auzmendi.

El Sr. **AUZMENDI AIERBE**: Brevemente, para señalar el apoyo de nuestro grupo al decreto-ley del Gobierno, ya que consideramos que la modificación que se plantea por parte del Gobierno es una modificación plenamente justificada y necesaria. Y, por otra parte también, teniendo en cuenta que por parte del decreto-ley del Gobierno se garantiza en principio la misma finalidad para la cual estaban previstos los fondos de lucha contra el paro, y también teniendo en cuenta que por parte del Gobierno se garantiza la información necesaria posterior a las modificaciones que se vayan a realizar.

En consecuencia, manifestar el apoyo de nuestro grupo parlamentario a este decreto-ley del Gobierno vasco.

El Sr. **PRESIDENTE**: El señor Pérez tiene la palabra.

El Sr. **PÉREZ GARCÍA**: Señor Presidente, señores del Gobierno, señoras y señores parlamentarios, nuestro grupo, el Grupo Socialista, va a apoyar también este decreto. Lo único que queríamos era hacer unas puntualizaciones, en principio porque veíamos un par de dificultades que quizá no se le hayan escapado a la Consejería, pero era bueno decirlas aquí.

Y era, en principio, aquellas obras ejecutadas por contrata y no ejecutadas directamente por la Administración. En caso de estas últimas no hay ningún problema, más que cambiar el grupo de trabajadores contratados a otra obra. En el caso de las contratas veíamos que podía surgir alguna dificultad adicional. Y también, en este caso de obras desarrolladas por contrata, el encaje económico del nuevo presupuesto dentro del resto, del fleco ese que quede del presupuesto de obra. Porque, claro, si ya en su día se adjudicó una obra por un monto total de dinero, podrían verse en dificultades económicas estos ayuntamientos que han solicitado el cambio de lo que restaba de obra, o, si no habían comenzado la obra, de la obra en sí. Si había pensado algo su Departamento para solventar esto.

Y luego veíamos un riesgo, y era que algunas obras que se iban a ejecutar por la Administración -que, como el señor Consejero sabe, cada año esto va un poco "in crescendo", se van a ejecutar más que el año pasado- generan más puestos de trabajo que las que se ejecutan por contrata, y quizá ahora, al adjudicar estas nuevas obras, se cambie el modo de contratación. Es decir, que sean obras de otra entidad, que sea más dificultoso hacerlas por la Administración y se vaya a dar una contrata, con la disminución de puestos de trabajo que ello implicaría, puesto que ya todas las obras estaban adjudicadas, había un dinero pero también había un número de puestos de trabajo a cubrir. Entonces, solicitaríamos que se exigiera, si puede ser, en este caso, que se garantizara, aun en el cambio de obra, el número de puestos de trabajo que daban las obras antiguas. Es decir, que se garantizara ese número de puestos de trabajo global.

LEHENDAKARI jaunak: Olaverri jaunak du hizpidea... Auzmendi jauna.

AUZMENDI AIERBE jaunak: Labur-labur, gure taldeak Jaurlaritzaren lege-dekretuari aldezpena emango diola aipatzeko, Jaurlaritzak azaldutako aldaketa erabat arrazoitutzat eta beharrezkotzat jotzen dugulako. Eta, bestalde, kontutan izan behar delako Jaurlaritzaren lege-dekretuak langabeziari aurre egiteko dirutzek xede zuten helburu bera beteko dutela bermatzen duelako hasiera batean, eta baita ere kontutan izan behar delako Jaurlaritzak gero egin daitezken aldaketei buruz behar den argibidea emango dela bermatzen duelako.

Beraz, gure legebiltzar-taldeak Eusko Jaurlaritzaren lege-dekretu honi aldezpena ematen diola adierazten dut.

LEHENDAKARI jaunak: Pérez jaunak du hizpidea.

PÉREZ GARCÍA jaunak: Lehendakari jauna, Jaurlaritzako jaunok, jaun-andre legebiltzarkideok, gure taldeak, Sozialistak Taldeak, dekretu honi aldezpena emango dio baita ere. Bi zehaztapen baino ez genuke egin nahi, behar bada Sailburuak aintzat hartuko zituen zailtasun pare bat ikusten genituelako, baina hala ere hemen esatea komeniko litzatekeenak.

Lehen zailtasuna hitzarmen bidez eta ez Administrazioak zuzenean egiteratzen ari diren lanak dira. Azken kasu honetan ez dago inolako arazorik, kontratatutako langileak lan batetik bestera eramatea baino ez dago. Hitzarmen bidez egindakoetan ordea, beste zailtasun bat behar bada beste zailtasun bat sor zitekeela ikusten genuen. Eta hitzarmen bidez egiten ari diren lan hauetan beste eragozpen bat ere ikusten genuen, alegia, aurrekontu berria gainerakoan, geratzen den lan-aurrekontuaren zati horretan nola sartu. Zeren, jakina, bere garaian lan baten esleipena egin bazen diru-kopuru jakin batetan, lana bukatzeko geratzen zena, edo, oraindik lana hasi gabe baldin bazegoen, lana bera aldatzeko eskatu zuten udalek behar bada ekonomi arazoak izan zitzaketelako. Ea zuen Sailak zerbait pentsatu al du hori konpontzeko.

Eta gero arrisku bat ikusten genuen, hau da, Administrazioak berak egiteratu behar zituen zenbait lanetan -Sailburu jaunak dakien bezala, urtero "in crescendo" doan gauza, aurten iaz gaino gehiago egiteratuko ditu-, hitzarmen bidez egiteratzen direnak baino lanpostu gehiago sortzen dituzte, alegia, orain, lan berri hauek esleitzerakoan, ez ote den kontratazio-modua aldatuko. Hots, orain beste mota bateko lanak izatea, Administrazioak berak aurrera eramateko zailtasun gehiagoko lanak izatea eta, ondorioz, hitzarmen bidez egiteratzea, horrek lekarkeen lanpostuen gutxitzearekin, honez gero lan guztiak esleiturik zeudelako, diru bat zegoelako, baina baita ere bete behar ziren lanpostu-kopuru bat zegoelako. Orduan, horrela gertatukoa balitz, nahiz eta lana aldatu, lehengo lanetan zegoen lanpostuen kopuru bera gordetzeko eskatuko genuke, ahal bada. Alegia, guztien lanpostu-kopurua ziurtatzeko eskatuko genuke.

Y al final teníamos el tema de informar; como usted ya lo dijo y nos adelantó lo que había venido hasta ahora, que creo que se cierra el plazo mañana, pues estamos conformes y vamos a apoyar el decreto. Simplemente que se tengan en cuenta esas puntualizaciones antes de que surjan dificultades. Gracias.

El Sr. **PRESIDENTE**: Señor Ormazabal, tiene la palabra.

El Sr. **ORMAZABAL ZAMAKONA**: Nuestro grupo va a votar favorablemente a la ratificación o a la convalidación de este decreto, porque entendemos que, ante la situación que se ha producido por el tema de las inundaciones, las necesidades urgentes de los ayuntamientos han variado. Y sobre todo teniendo en cuenta que las condiciones de ayuda de los ayuntamientos que solicitan ayuda no varían, pues pensamos que es no solamente acertado, sino también necesario este decreto que, como decía anteriormente, vamos a ratificar.

El Sr. **PRESIDENTE**: Vamos a proceder seguidamente, señorías, a la votación. *(Pausa.)*

Efectuada la votación, el resultado fue el siguiente: votos emitidos, 33; a favor, 32; en contra, ninguno; abstenciones, ninguna; nulos, uno.

El Sr. **PRESIDENTE**: Queda, por tanto, convalidado el decreto-ley.

Punto tercero del orden del día: "Debate y votación de totalidad en orden a la convalidación o derogación del Decreto-Ley 1/1983, de 12 de septiembre, sobre régimen de las áreas de actuación inmediata de la edificación dañada por las recientes lluvias".

Exposición por parte del Gobierno. Tiene la palabra el señor Consejero de Obras Públicas.

El Sr. **CONSEJERO DE POLÍTICA TERRITORIAL Y TRANSPORTES** (Lasagabaster Etxarri): Señor Presidente, señorías, la Ley 17/1983, de 8 de septiembre, que ahora mismo acaba de ser refrendada, autoriza al Gobierno a dictar los decretos-ley con carácter extraordinario excepcional, como se sabe, por un plazo de cuatro meses, y en base a esta ley se dictó como primer decreto el 1/1983, de 12 de septiembre, sobre régimen de las áreas de actuación inmediata de la edificación dañada por las recientes lluvias.

Las consecuencias del siniestro, de las lluvias torrenciales, hicieron ver ya desde el principio que iba a ser preciso adoptar unas medidas muy urgentes en materia de obtención o de consecución de alternativas para ubicar viviendas, industrias e incluso infraestructura que hubiera quedado afectada o dañada o que hubiera acreditado que estaba emplazada o ubicada en puntos inconvenientes. Ello a su vez acreditó desde el principio la necesidad de arbitrar un procedimiento, una legalidad, un método que, sin de ninguna manera vulnerar la legislación vigente, respetando el derecho tanto de las institu-

Eta azkenik berri ematearen gaia genuen; zuk esan zenuenez eta aurretik esan zenigunez, uste dut epea bihar bukatzen dela, eta horrekin bat gatoz eta dekretuaren alde agertuko gara. Zailtasunak sortu baino lehen zehaztasun horiek aintzat har daitezela eskatu baino ez. Eskerrik asko.

LEHENDAKARI jaunak: Ormazabal jauna, hizpidea duzu.

ORMAZABAL ZAMAKONA jaunak: Gure taldeak dekretu honen sendestearen edo berrestearen aldeko botoa ematekoa da, uholdeen gaiarekin sortutako egoeraren aurrean, udalen presazko premiak aldatu egin direla irizten dugulako. Eta batez ere kontutan izanik laguntza eskatzen duten udalei laguntza emateko baldintzak ez direla aldatu, bada, lehen nioenez, sendespena ematera goazen dekretu hau ez bakarrik egoki dela, baizik eta baita ere beharrezko dela uste dugu.

LEHENDAKARI jaunak: Legebiltzarkideok, ekin diezaiogun zuzenean boto-emanketari. *(Tartea.)*

Boto-emanketa egin ondoren, emaitza honako hau izan zen: emandako botoak, 33; aldekoak, 32; aurkakoak, bat ere ez; abstentzioak, bat ere ez' baliorik gabeak, bat.

LEHENDAKARI jaunak: Beraz, lege-dekretua sendetsitzat jotzen da.

Gaizerrendako hirugarren puntua: "Duela gutxiko euri-jasek kaltetutako eraikuntzetan berehala ihardutzeko esparruen eraentzari buruzko irailaren 12ko 1/1983 Lege-Dekretua sendestera edo baliogabetzera bideratutako eztabaidaketa eta osoarekiko boto-emanketa".

Jaurlaritzaren aldetiko lege-dekretuaren adierazpena. Herri-Lanetako Sailburu jaunak du hizpidea.

LURRALDE-POLITIKA ETA GARRAIO SAILBURU (Lasagabaster Etxarri) jaunak: Lehendakari jauna, legebiltzarkideok, oraintxe bertan sendespena jaso duen irailaren 8ko 17/1983 Legeak, Jaurlaritzari berealdiko aparteko kasuetan lege-dekretuak emateko baimena ematen dio, jakina denez, lau hilabeteko epean, eta lege honetan oinarriturik, lehen dekretu bezala, irailaren 12ko 1/1983 dekretua atera zen, orain dela gutxiko eusijasek kaltetutako eraikuntzetan berehala ihardutzeko esparruen eraentzari buruzkoa.

Hondamendiaren, euri-jasen ondorioek hasieratik utzi zuten agerian kaltetuak gertatu ziren edo toki ezegokian kokatuta zeuden etxebizitza, industria eta baita azpiegiturak ere beste lekuren batean kokatzeko neurriak presa handiz hartu beharra zegoela. Honek aldi berean, indarreango legedia inola ere urratu gabe, alor honetan agintepidea duten erakundeen eskubideari nahiz administraziopekoen eskubideari men eginez, hala ere aipatzen dudan helburu nagusi honen lorpena ikaragarri arintzea eta bizkortzea ahalbideratuko luken ihardunbide bat, lege-esparru bat, erapidetza bat eratzeko premia aza-

ciones que tienen competencia en esta materia como de los administrados, permitiera no obstante acelerar y agilizar extraordinariamente la consecución del fin principal a que me refería.

Realmente, ya se veía desde el primer momento que áreas residenciales de una degradación extraordinaria preexistente, especialmente en la comarca de Bilbao, habían sido todavía más infradotadas si cabe como consecuencia del siniestro. No hay más que recordar barrios como el Peñascal, La Peña, Mendaro, o áreas industriales o implantaciones industriales en la zona del Nervión, en Bermeo, etcétera, que están en la mente de todas sus señorías, para demostrar y evidenciar que era preciso al Gobierno arbitrar una fórmula rápida, ágil y desburocratizada, que planteara soluciones urgentes, como digo, pero no exentas de rigor y de las necesarias garantías en cuanto a sus planteamientos urbanísticos.

Por ello, en este decreto-ley, siguiendo un paralelismo total con la propia legislación vigente, y en concreto con la ley del Suelo, se han reducido los plazos de audiencia a los particulares y se han hecho coincidir éstos con los que corresponden a las instituciones, diputaciones forales y ayuntamientos afectados, siendo posible igualmente la tramitación simultánea de los Planes de Actuación Inmediata -que ésta es la figura nueva que se crea en este decreto-ley, el Plan de Actuación Inmediata a que en el futuro, me imagino, nos acostumbraremos a llamar PAI- con los planes parciales y los planes especiales que los desarrollen, omitiéndose en todos ellos, a diferencia de lo que ahora sucede, el trámite intermedio de la aprobación provisional y dejándolo exclusivamente en la aprobación inicial y la aprobación definitiva. Pero sin que ello suponga una monopolización de la formulación de los planes por el Gobierno, porque, como se dice en el propio texto del decreto-ley, esta redacción, o la incoación de estos PAI, puede ser a instancia del propio Gobierno o sugerido a instancia de diputaciones y ayuntamientos, e incluso ayuntamientos y diputaciones y demás entidades pueden redactar asimismo los planes parciales y los proyectos de urbanización.

Una consecuencia importante de la aprobación de los Planes de Actuación Inmediata es, como no podía ser de otra manera, la declaración de utilidad pública de su ejecución, así como la declaración de urgencia para la ocupación de los terrenos, de los bienes y de los derechos que permitan, en definitiva, ubicar sobre los mismos los espacios o suelos necesarios para la construcción de las zonas residenciales e industriales o las infraestructuras, carreteras o de cualquier otro tipo. No supone en ningún momento ninguna novedad con respecto al procedimiento de expropiación; no se innova, sólo se abrevia y se acorta.

Desde el punto de vista de ejecución de los planes de actuación, podrán hacerse estos planes, como decía, bien directamente la ejecución desde el propio plan parcial o plan especial o, cuando sean suficientemente exhaustivos estos planes especiales, sin proyecto de urbanización o proyecto de obras especiales. Pueden los proyectos de urbanización a su vez revestir dos modalidades: proyectos de urbanización integral y de urbanización

leratu zuen hasieratik.

Izan ere, hondamendiaren ondorioz hasiera-hasieratik ikusi zen nola lehendik ikaragarri andeaturik zeuden etxebizitzatarako alorrak, batez ere Bilboko eskualdean, lehendik ere gaizki horniturik zeuden. Legebiltzarkideon buruan dauden Peñascal, La Peña, Mendaro bezalako auzoak, edo Nerbioi aldeko, Bermeoko industri alorrak edo industri kokaguneak baino ez dago gogora ekartzerik, Jaurlaritzak bide azkar, arin eta burokratizazio gabekoa jorra dezala premiazkoa dela frogatzeko eta erakusteko, diodanez, presazko konponbideak bilatu ahal izateko baina ez horregaitik zorroztasunik gabekoak eta beharrezko berme gabekoak hirigintzaren aldetik.

Horrexegaitik, lege-dekretu honetan, indarreango legediarekin, eta hain zuzen, lurzoru legearekin erabateko parekotasunez, norbanakoei entzuteko aldiak laburtu egin dira eta aldi hauek ukituta gertatzen diren erakundeei, foru-diputazioei eta udalei entzuteko aldiekin bateratu egin dira, era berean Berehala Ihardutzeko Egitamuak -lege-dekretuan sortzen den legebide berria hau da, Berehala Ihardutzeko Egitamua, hemendik aurrera, pentsatzen dut, BIE esaten ohituko garena- egitamu hauek garatuko dituzten zati-egitamuekin eta egitamu bereziekin batera izapidetzea izango delarik, gaur gertatzen den ez bezala, guztietatik behin-behineko onespenaren izapidea kenduz eta hasierako onespena eta behinbetiko onespena baino ez utziz. Honek ez du esan nahi egitamuen gertaketa Jaurlaritzaren esku baino ez dela egongo, zeren, lege-dekretuaren idazkiak berak dioenez, BIE hauen idazketa edo ekimena Jaurlaritzaren arioz edo diputazioen eta udalen arioz izan daiteke, eta era berean udalek zein diputazioek eta halaber beste erakundeek zati-egitamuak eta hirigintzaketa-egitasmoak prestatzeko gaitasuna izango dute.

Berehala Ihardutzeko Egitamuen onespenaren ondorio garrantzitsu bat, noski, beraien egiteratzea herrionurazkotzat aitortzea dakarrela da, eta halaber ekartzen du lurrak, ondasun eta eskubideak hartzea ahalbideratzen duen premiazko aitorpena, gero bertan biziguneak, industriguneak edota azpiegiturak, errepideak edo bestelakoak egiteko beharrezko diren guneak edo lurzoruak kokatu ahal izateko. Ez du, jabetza kentzeko ihardunbidearen aldean, inolako berrikuntzarik ekartzen honek; ez da gauza berririk sartzen, moztu eta laburtu baizik ez da egiten.

Ihardutzeko egitamuen egiteratzearen ikuspuntutik, egitamu hauen egiterapena, nioenez, bai zati-egitamutik edo egitamu berezitik zuzenean, edota egitamu berezi hauek nahikoa zehatasun dituztenean, hirigintzaketa-egitasmorik edo lan berezien egitasmorik gabe egin ahal izango da. Hirigintzaketa-egitasmoak aldi berean bi motatakoak izan daitezke: hirigintzaketa orokorreko egitasmoak eta zati bateko hirigintzaketa-egitasmoak,

parcial, que son sometidos a una única aprobación definitiva y puede ser facultad del Departamento de Política Territorial y Transportes, de la diputación foral o de los ayuntamientos, supeditada la ejecución a la obtención de la licencia municipal. En ninguna de las hipótesis que se contemplan, tres en concreto, tres campos que se contemplan en este decreto-ley, en ninguna de las hipótesis, repito, cabe la posibilidad de orillar o de omitir o de denegar la competencia municipal, que debe intervenir siempre para la preceptiva concesión de licencia de edificación y uso del suelo, porque, en definitiva, repetimos, queremos mantener la vigencia legal.

También se contemplaba en aquel momento, desde el principio, la posibilidad de existencia de edificaciones, tanto en suelo urbano como en suelo no urbanizable, que hubieran sido afectadas por las lluvias torrenciales y que en virtud del planeamiento urbanístico resultaran disconformes, es decir, estuvieran fuera de ordenación, bien por planeamiento ya vigente, bien por planeamiento en tramitación, y a las que entendemos se debe permitir su consolidación, su reconstrucción e incluso su ampliación hasta un 20 por ciento de la superficie construida.

Nosotros teníamos muy claro y muy presente que numerosísimos caseríos, por ejemplo, podían haber sido dañados por las lluvias torrenciales y que simplemente bastaba para restablecer el orden, para restablecer la situación anterior, unas reparaciones, unas reconstrucciones, pero que con una aplicación estricta de la legalidad vigente a lo mejor no iban a ser posibles. Hay casos inclusive en que se contempla la posibilidad de que estos edificios (repito, caseríos o cualquier otro tipo de edificación aislada), estando fuera de ordenación, puedan ser reconstruidos, pero que, si no pudieran ser reconstruidos en el mismo y preciso lugar por razones de seguridad, puedan ser reconstruidos -especialmente esto en las edificaciones de tipo rural o agrícola-, puedan ser reconstruidos con unas características similares próximas y con cumplimiento de una serie de requisitos y de circunstancias sobre tipología, tamaño, uso, etcétera, etcétera.

En este decreto-ley, como sus señorías han podido apreciar, siempre está presente en última instancia la autorización, la licencia municipal, y la misma regulación, digo, se tiene presente o se aplica para las edificaciones que estén en suelo urbano o en suelo urbanizable. Se tienen presentes igualmente aquellas hipótesis en las que, porque el edificio o la construcción se encuentre fuera de ordenación como consecuencia de posibles... el ejemplo clásico de ampliación de una carretera, es decir, que esté programada su posible expropiación en el futuro, la valoración de estas reparaciones, su inscripción en el Registro como requisito sustancial, al objeto de evitar al erario público que, en definitiva, en el futuro puedan gravar las obras públicas o la construcción de infraestructuras.

Esto es en esencia lo que este decreto-ley programa, que, repetimos, lo único que se pretende conseguir con él es un instrumento ágil y rápido por unos plazos y un periodo de tiempo de vigencia perfectamente definido, de manera que sin orillar, sin disminuir las garantías legales ni la competencia de las instituciones,

behin-betiko onespen bakar bat baino izango ez dutenak eta Lurralde-Politika eta Garraio Sailaren, foru-diputazioaren zein udalen ahalmenen barruan sar daitezkenak, beti ere egiterapena udal-baimenaren menpe dagoelarik. Lege-dekretu honetan ezarrita dauden kasuetariko batean ere ez, hiru horietan hain zuzen, ezarritako hiru alor horietan, kasuetariko batean ere ez, berriro diot, ez dago udal-agintepidea baztertzerik, sahiesterik edo ukatzerik, udalak beti esku hartu behar baitu legezko den eraikitzeko eta lurzorua erabiltzeko baimena emateko, azken batean, berriro diogunez, indarreango legediari eutsi nahi diogulako.

Une hartan, hasieratik beste aukerabide bat ere hartu zen kontutan, hots, bai hiri-lurzoruan bai hirigintzaketarako ez den lurzoruan, euri-jasek ukitutako eraikuntzak daudela, hirigintzako egitamuketaren ondorioz ezegoki gertatudirenak, alegia, ordenazioz kanpo geratu direnak, bai indarreango egitamuketaren ondorioz, bai izapidetzen ari den egitamuketaren ondorioz, eta hauei, gure iritziz, sendotzen, berreraikitzen eta baita ere eraikitako azaleraren ehuneko 20an zabaltzen utzi behar zaie.

Guk argi asko genuen baserri asko eta asko, adibidez, euri-jasa zirela eta kaltetuak gertatuko zirela, eta gauzak bere onera ekartzeko, lehengo egoerara bueltatzeko, konponketa batzuk, berreraiketa batzuk egin baino ez zela behar, baina indarreango legedia zorrotz erabiliz agian konponketa horiek egiterik ez zela izango. Badaude zenbait kasu baita ere eraikin hauek (berriro diot, baserriak zein bakandutako beste edozein eraikin) nahiz eta ordenazioz kanpo egon, berreraikitzeko aukera ematen dela, baina segurtasun neurriak direla eta lehen kokatuta zeuden toki zehatz horretan jasotzerik ez badago, beste nonbait eraikitzeko aukera ematen da -batez ere nekazal motako eraikinak badira-, berirro diot, berreraikitzeko aukera ematen da baldin eta mota, neurri, erabilera etabarri buruzko baldintza batzuk betetzen badira.

Lege-dekretu honetan, legebiltzarkideok ikusi ahal izan dutenez, azken batean, beti udal-baimena hartzen da kontutan, eta, berriro diot, arauketa bera aintzat hartzen da edo erabiltzen da hiri-lurzoruan nahiz hirigintzarako lurzoruan kokatuta dauden eraikinetarako. Kontutan hartzen dira baita era beste kasu batzuk, alegia, egin daitezken lan batzuren ondorioz eraikina edo eraikuntza ordenazioz kanpo geratzea... ohizko adibidea errepide bat zabaltzea da, alegia, honen ondorioz eraikina desjabetzeko asmoa egitarau baten barruan sartuta egotea, konponketa hauen balioztapena, Erroldean sartzea herri-ogasunari, azken batean, herri-lanak edo azpiegituren eraikuntza zamapetu izan ez dezaten.

Hau da, funtsean, lege-deketu honen egitarauen sartzen dena, eta, berriro diogu, berarekin lortu nahi den gauza bakarra tresna arin eta azkar bat da, epe eta indarreangotasun-aldia ederki zehaztuta duelarik, horrela, lege-bermeak nahiz erakundeen agintepidea sahiesteke, gutxitzeke, egoerak eskatzen dituen neurriak eratu ahal

pueda permitir arbitrar las medidas que las circunstancias demandan. Muchas gracias.

El Sr. **PRESIDENTE**: Debate de totalidad. Turno a favor. *(Pausa.)*

En contra. *(Pausa.)*

Intervención de grupos. Señor Griñó, tiene la palabra.

El Sr. **GRIÑÓ RABERT**: Señor Presidente, señorías, nuestro grupo, del que forma parte mayoritaria Coalición Popular, es partidario de la convalidación del decreto-ley que nos ocupa, referido al régimen de las áreas de actuación inmediata y de la edificación dañada por las recientes lluvias. Todo nos parece poco para lograr la más pronta recuperación posible de las heridas sufridas en el patrimonio privado y público de la Comunidad Autónoma del País Vasco. A ello presta Coalición Popular su más entusiasta apoyo.

Y este apoyo nos lleva a decir que en la aplicación del decreto-ley que nos ocupa la Consejería de Política Territorial y Transportes debe conjugar la deseada pronta recuperación con la previsión técnica que debe deducirse de la pasada catástrofe, en el sentido de no hacerse en ningún caso eco de sensiblerías y no otorgar ayudas y autorizaciones para la reconstrucción en áreas cuya peligrosidad ha quedado demostrada.

Ni una de nuestras escasas pesetas debe invertirse sobre pesetas malas, es decir, sobre bienes e instalaciones dañados, repitiendo el ciclo de seguros riesgos futuros. Entendemos que en ningún caso deben autorizarse reconstrucciones de edificios que estén emplazados en áreas peligrosas, ni otorgar licencia de construcción de otros nuevos que los sustituyan en zonas que pudiesen autorizarse para ello según planes parciales vigentes, si tales emplazamientos no son previamente revisados en función de las normas de prevención técnica vigentes en cuanto a distancia de los cauces.

Confiamos en que éstos serán los criterios de aplicación del decreto-ley que nos ocupa, y en tal sentido prestamos nuestro voto favorable a la convalidación. Muchas gracias.

El Sr. **PRESIDENTE**: El señor Olaverri tiene la palabra.

El Sr. **OLAVERRI ZAZPE**: Para Euskadiko Ezkerra el instrumento que este decreto-ley proporciona al Gobierno a la hora de abordar la reconstrucción de nuestras ciudades es absolutamente necesario.

Pero yo aquí no quisiera dejar pasar la ocasión sin hacer un breve examen de conciencia de lo que esta riada ha puesto en evidencia, por si fuera necesario, puesto que yo creo que solamente con circular por las carreteras era totalmente obvio: Euskadi está llena de barriadas ilegales, de aberraciones urbanísticas sin nombre, de actuaciones de especuladores con absoluto desprecio a las le-

izateko. Eskerrik asko.

LEHENDAKARI jaunak: Osoarekiko eztabaidaketa. Alde hitz egiteko txanda. *(Tartea.)*

Aurka. *(Tartea.)*

Taldekako txanda. Griñó jauna, hizpidea duzu.

GRIÑO RABERT jaunak: Lehendakari jauna, legebiltzarkideok, gure taldea, Coalición Popular gehiengo kide duena, gagozkion lege-dekretua, berehala ihardutzeko alorren eta duela gutxiko euri-jasek kaltetutako erakinen eraentzari buruzkoa, sendestearen aldekoa da. Guztia gutxi iruditzen zaigu Euskadiko Autonomi Elkarteko ondare pribatuak eta herri-ondareak pairatutako zauriak ahalik eta lasterren sendatzea lortzeko. Horretarako Coalición Popular-ek bere laguntzarik sutsuena eskaintzen du.

Eta laguntza honek esatera garamatza gagozkion lege-dekretua ezartzerakoan, Lurralde-Politikako eta Garraioetako Sailak guztiok nahi dugun zuzpertze laster hori igarotako hondamenditik atera beharra dagoen teknikazko aurrikuspenarekin elkartu behar duela, alegia, ez diela inola ere sentiberakeriei jaramonik egin behar eta ondorioz ez duela laguntzarik eta baimenik eman behar arriskutsu direla frogatu diren guneetan berreraikitzeko.

